

Bilera-akta
HABEko Zuzendaritza Batzordea

Eguna: 2011-09-19, astelehena **Hasiera-ordua:** 11:10 **Bukaera-ordua:** 12:50

Bertaratuak

Blanca Urgell Lázaro and., Kultura sailburua
Lurdes Auzmendi Ayerbe and., Hizkuntza Politikarako sailburuordea
Ivan Igartua Ugarte jn., HPSko Koordinaziorako zuzendaria
Patxi Martinez de Marigorta Guzman jn., HPSko Herri Administrazioetan Euskara Normalizatzeko zuzendaria
Iñaki Uribe Burgoa jn., HABEko zuzendari nagusia
Encar Echazarra Huguet and., HAEE-IVAPeko zuzendaria
Miren Dobaran Urrutia and., Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia
Zigor Etxeburua Urbizu jn., Gipuzkoako Foru A.ko Euskararen Normalizaziorako zuzendari nagusia
Esther Isasa Gaskue and., HABEko Didaktika Zerbitzuko ordezkaria
Maite Euba Areitio Aurtena and., Araba eta Bizkaiko udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria
Arantxa Ezeiza Trojaola and., Gipuzkoako udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak

Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiko ordezkariak bertaratzeko ezintasuna adierazi du.
Arabako Foru Aldundiko ordezkaria ez da etorri, bilera-egunean izendatzeke baitzegoen.
Bestalde, EUDEL erakundeak, gonbidaturik egon arren, ez zuen ordezkariarik bidali.

Aztergaiak

1. Blanca Urgell Lázaro Kultura sailburuaren agurra
2. Zuzendaritza Batzordeko kide berrien aurkezpena
3. 2010-12-16ko bilera-akta onartzea
4. Plan estrategikoaren aurkezpena
5. 2011ko jardueren eta aurrekontuen egoera eta 2012rako aurreikuspenak
6. HABEko zuzendari Iñaki Uribe izendatzea erakundearen ordezkari, Gipuzkoako Ogasunean egin behar diren kudeaketetarako.
7. Norberak leharkeena

Esan-eginak eta erabakiak

1) Blanca Urgell Lázaro Kultura sailburuaren agurra eta kide berrien aurkezpena

Blanca Urgell Kultura sailburuak hasiera eman dio bilerari bertaratutako guztiei ongi etorria emanez.

2) Zuzendaritza Batzordeko kide berrien aurkezpena

Batzordean hainbat kide berri daudenez, banan-banan aurkeztu dira batzordeko kide guztiak.

3) 2010-12-16ko bilera-akta onartzea

Bere horretan onartuta gelditu da.

4) Plan estrategikoaren aurkezpena

Plan estrategikoa Ikertalde enpresak egin du. Aurreko bileran azaldu bezala, aspaldian erakundearen halakorik egiteke zegoenez, bazegoen HABE erakundearen gaineko hausnarketa egiteko beharra. HABEz ari garenean, erakundeaz gain euskaltegien jarduna ere barne sartzen da. Azken finean, gure inguruan gertatzen ari diren aldaketan aurrean nola kokatu behar duen HABE da aztergai.

Plana egiteko erabilitako metodologia parte-hartzailea izan da. Saiatu dira eragile guztien iritzia biltzen; erakundearen nahiz euskaltegiaren. Erantzuna zabala izan da. Hausnarketa-talde bat ere sortu zen.

HABEren jardura eta dinamika aztertzerakoan honako puntuak jasotzen dira planean:

- Erakundearen jardura eta antolaketa arautzen dituen legedia zaharkituta dago.
- Langileen erdiak pasa 50 urtetik gora du HABE erakundearen; euskaltegiaren irakasleek eta berrituz doa neurri batean. Horrek esperientziaren abantaila dauka, baina inertziarako arriskua ere bai.
- Euskaltegien eta irakasle-kopuruaren bilakaerak egonkortzera jo du.
- Ikasle-kopurura hazi egin da, baina trinkotasun gutxiagoko ikastaroak ematen dira orain. Ikasleen profila: 30 urtetik gora ditu %60 baino gehiagok.
- Autoikaskuntza eta modalitate mistoek hazkunde nabaria izan dute; ikastaro trinkoek behera egin dute; horrek ikastaro-motak birplanteatzea eskatzen du.
- Euskaltegi publiko eta pribatuaren arteko desoreka nabarmena da arlo ekonomikoan; esaterako, publikoek ikasleko jasotzen duten dirulaguntzak ia bikoiztu egiten du pribatuena.
- Irakasleen prestakuntza eta materialak diseinatu eta sortzea HABE eta euskaltegien artean partekatua behar luke izan euskaltegien iritziz.
- Dirulaguntzen bidezko sistema birmoldatzeko eskatzen da.
- Euskaltegiek protagonismo handiagoa eskatzen dute egiaztatze-sisteman.
- Aurreikusten da 2010ean izandako 40.000 ikasle %14,2 jaitziko dela 2015ean, eta % 23,1 2020an.

HELBURU ESTRATEGIKOAK:

- Sistema, epe ertain eta luzera aurreikusten den eskaerara eta testuinguru ekonomikora etengabe doitzen joatea
- Egungo eskari malgu eta askotarikoaren arabera eskaintza eta irakaste prozesuak modernizatu eta egokitzea
- Jardueraren ebaluazio sistemaren garapena eta kalitatearen ziurtapena
- Ikaskuntza prozesuetan teknologia berriak ezartzea
- Planifikazioa eta eraginkortasuna irizpide bezala harturik, sistemaren baliabide multzoa optimizatzea; eta balorea sortzen duten jardueretan zentratzea

IKUSPEGIA:

Helduen euskalduntze-sistema gorpuztea:

- ikasleak sistemaren erdigunean kokatuz
- euskaltegi sarearen ikusgaitasuna areagotuz eta elkarlanaren bidez sistemaren baliabide orokorrak optimizatuz
- HABE sistemaren eraginkortasuna eta kalitatea bermatzeaz arduratuz

AURRERA ERAMAN BEHARREKO EKINTZAK:

Eskariaren testuinguru berrira egokitzea:

- HABEko langileak pixkanaka egokitzen joan, kuantitatiboki zein kualitatiboki, euskaltegi-tako ekarpenak optimizatu eta barne-rol aldaketak egiten joateko
- Jardueren eta baliabide ekonomikoen kudeaketa planifikatu
- Finantza-sistema egonkorra eta malgua eratu, euskaltegi-tako eskaintzaren eraldaketa bultzatuko duena
- Beste erakunde publikoekin finantzazio-formula "finkoak" lortzeko konpromisoa bilatu

Ikaskuntza-prozesuen modernizazioa eta dinamizazioa:

- Ikaskuntza modu berriak eta teknologia berriak proiektu estrategiko bezala
- Material eta baliabide didaktikoak lantzeko ahalegin partekatua optimizatu
- Hizkuntza gaitasunak egiaztatzeko eredu partekatu eta malguagoak aztertu
- Euskaltegien eta sistema osoaren kalitatearen hobekuntza eta berrikuntzaren sustapena
- Merkatu eta zerbitzu berriak irekitzen lagundu finantzaketa bide berrien bidez

Euskarri-elementuak indartu:

- Marko legala eguneratu eta egokitu
- Komunikazioa eraberritu eta sustatu

Ikertaldekoen azalpenaren ondoren galdera eta iruzkin asko mahairatu dira kide askoren partetik. Besteak beste: HABEko langileen batez besteko adina ajetzat baino gehiago gauza positibotzat hartu behar litzateke, atzean esperientzia handia dagoela esan nahi baitu. Argi dago oraingo klase-sistema zurrunezia dela. Pentsatu beharra dago nola hobetu HABE eta euskaltegien arteko lankidetzak. Bistan da zenbait arlotan hobetu beharra dugula: finantzazioa, araudia... Lehenengo 5 urratsak gaintzen dituztenek ez dute diru-laguntzarik jasotzen eta hori aldatu beharko litzateke. Teknologia berrien aldeko apustua egin behar dugu, baina ondo aztertu beharko da ea gure ikasleek zenbateraino dauden ohituta baliabide horiek erabiltzen eta emandako ordukin helburuak (mailak egiaztatzea...) betetzen diren; etab.

Bere aldetik, Enkar Echazarrak adierazi du langile publikoak ari direla dagozkien HEak eskuratzen. Ondorioz, IVAPeko ikasle-kopurua jaisten joango da; hizkuntza-gaitasuna egiaztatu behar duten langileen %51k dagoneko egin du. Beste zerbitzu batzuk eskaini beharko lituzke HABEko, aurrekontuak berdintze aldera; kontuan harturik erabileran dagoela erronka, langileak bere laneko eginkizunetan trebatzea izan liteke hurrengo urratsa. Horren harira, badago esperientziarik trebakuntzan Gipuzkoan, eta arrakasta itzela du.

Auzmendi andreak adierazi duenez, HABEren zerbitzuak jasotzen dituzten erakundeekin hitz egin beharko da: IVAP, Justizia, Osakidetza...

Plan estrategikoa aztertu eta aurrera eramateko, talde bat osatuko da aurki.

5) 2011ko jardueren eta aurrekontuen egoera eta 2012rako aurreikuspenak

Aurrekontuekin ez dago aparteko aipamenik, aurreikusitako bidetik doaz. Aurrekontu horien kontura egin dira, besteak beste:

- Curriculumaren inguruko hainbat adierazle zehaztu eta aukeratu dira, erakundearen zein euskaltegi-tan jartzen diren prozesuen (auto)ebaluazio erreferente izan daitezten.

- A1eko eskuliburuak sortzeko esleipena egin da; baita, AISA on line jartzeko esleipena ere.

Hurrengo bilera otsail aldera egitea proposatu du Uribe jaunak, eta bertan aurrekontuan onartuta izango ditugunez, azalpenak emateko modua egongo da, aurrekontuetako partiden kontura zertan gastatuko den zehazteko. Bizi dugun krisi-testuinguru honetan, litekeena da %10eko murrizketa izatea.

Azterketen inguruan ere euskaltegien parte-hartzea aztertu beharra dagoela adierazi du HABEko zuzendariak; Bestalde, HABEK bere aurrekontuetan beste erakundeetatik jasotzen duen %20 hori aztergai daukagu.

Esther Isasak esan du Ikasbil berritua atzeratzen ari dela, hasiera batean uste baino zailagoa gertatzen ari baita.

Auzmendi sailburuordeak azaldu duenez, datozen aurrekontuetan ere segida eman nahiko litzaioke A2 eta B1 mailako eskuliburuak argitaratzen jarraitzeko.

Azterketaldi bakarra egitea ere pentsatu beharko da, bi egiteak zama handia baitakar. Plan pilotu batzuk egiteko asmoa dago, ezarian-ezarian egiaztatze-prozesua euskaltegien esku lagatzeko, behar adinako eskarmentua baitute horretarako.

6) HABEko zuzendari Iñaki Uribe izendatzea erakundearen ordezkari, Gipuzkoako Ogasunean egin behar diren kudeaketetarako

Aho batez onartu da.

7) Norberak lekarkeena

Arantxa Ezeizak azterketen gaineko plan pilotuak egiterakoan euskaltegi publikoek ere parte-hartzea eskatu du; Lurdes Auzmendik erantzun dio EUDELen barruan euskaltegi publikoak inplikatzeko modua bilatuko dutela.

Horrenbestez, amaiera eman zaio bilerari.